

ETXEKO ZERBITZUAREN ERREGULAZIOA

2346/1969 Dekretua,
irailaren 25ekoa,
Etxeko Langileen Erregimen
Berezia arautzen duena



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES



ETXEKO ZERBITZUAREN ERREGULAZIOA

Euskal Autonomia Erkidegoko herritar etorkinen integrazio eta partaidetza sozialerako Foroaren Laneko eta Enplegurako pres-
takuntzako Batzordeak, etxeko zerbitzuaren erregulazioa jakina-
razte aldera, informazio-liburuxka hau egin du, eta bertan honako
hauek azaltzen dira modu errazean: oinarrizko araudia, gutxiene-
ko lan-baldintzak eta kontratatutako pertsonak nahiz kontratatzen
duenak nahitaez bete behar dituzten izapideak.

Gauzatzen duzuen etxeko lan-modalitatean lagungarri izatea es-
pero dugu, eta kontratatuak zaudetenen eta kontratatzen zaituz-
ten etxeko titularren arteko harremanak hobetu eta bizkortzea.

**2346/1969 Dekretua, irailaren 25ekoa, Etxeko Langileen
Erregimen Berezia arautzen duena**

GIZARTE SEGURANTZAREKIKO KOTIZAZIOAK

- **Afiliazio-eskabideak**, altak eta bajak aurkezteko betebeharra eta enplegatuen datuen aldaketak jakinarazteko betebeharra ho-
nako honi dagozkio:
 - lanaldi osoko enplegatuen kasuan: enplegatzaillea;
 - astean 20 ordu baino gutxiagoko zerbitzua ematen duten enplegatuen kasuan: enplegatua.



- Etxeko langileen erregimen bereziarekiko **kotizazio-tasa** %22 da, eta kotizatzeke betebeharra betetzeko ardura honako honi dagokio:
 - lanaldi osoko enplegatuen kasuan: enplegatzailea.
Bere 28,3 € ko ekarpena eta langilearen kargurako %3,70eko zatia ordainduko du, bere soldatan atxikita;
 - astean 20 ordu baino gutxiagoko zerbitzua ematen duten enplegatuen kasuan: langilea.
- Kontingentzia guztientzako **kotizazio-oinarria**, lanaldi osoan lan egiten dutenen kasuan, Lanbidean arteko Gutxieneko Soldata (LGS)a izango da. Horren zenbatekoa urtero zehazten da Estatuko Aurrekontu Orokorraren Legean, eta, lanaldi txikiagoen kasuan, proportzionalki kalkulatu da horretan oinarrituta.
 - 2010eko urteko LGS: 8.866,20 €
 - 2010eko hileko LGS: 633,30 €
 - 2010eko eguneko LGS: 21,11 €

Ez dago kontingentzia profesionalengatiko kotizaziorik. Ez da babes espezifikorik ematen langabeziagatik.

BESTELAKO LAN BALDINTZAK

- Lan-kontratua ahozkoa edo idatzita izan daiteke. Ahozkoa bada, urtebeteko iraupena duela ulertuko da. 15 eguneko probaldia-rekin egin dela pentsatuko da.



- Kontratua edozein modalitatetan egin daiteke, baina eredu denboraldi-urtekoa da, eta urteko alditan luzatuko da isilbidez, betiere kontratuaren amaiera zazpi egun lehenago iragartzen ez bada, eta 20 egun lehenago harremana urtebetekoa baino luzeagoa izan bada.
- Urteko kontratua justifikatutako arrazoirik gabe amai daiteke. Kalte-ordaina lan egindako urte bakoitzeko 7 egunekoa da.
- Gaixotasunaren edo istripuaren kasuan, Aldi baterako Ezintasuna (AE)ko egoeragatiko prestazio ekonomikoa hogeita bederatzigarren egunean hasiko da jasotzen, gaixotasuna hasi zenetik edo istripua gertatu zenetik zenbatuta.
- Lanaldien arteko atsedena 8 ordukoa da barneratutako pertsonentzat, eta 10 ordukoa kanpokoentzat.
- Asteko gutxieneko atsedena 36 ordukoa da, eta horietatik 24 ordu gutxienez ondoz ondokoak izan behar dute, eta igandean ahal bada.
- Urtean 30 opor-egun dagozkie, eta horietatik 15 jarraian baliatu beharko dira.
- Urtean 14 jaiegun dituzte, eta egun horiek ordainduak edo oporretarako meta daitezke.
- Urtean bi aparteko paga-erdi biltzen dira.

Atzeritarrentzat: ezinbestekoa da kontratuan aurkeztuko den soldata LGSaren 14 pagakoa izatea, eta ezin izango dira bi aparteko paga-erdi izan.